

UZTAPIDE BERTSOLARIA

Aurten, urtearen lenengo illean, Iñaki Azpiazu abade agurgarriari, «don Iñaki»ri, Azpeiti bere erriak eskiñi eutsan omenaldian, an zan «Basarri», meza bertsoan eskintzen.

Eleizatik urten eta aurreko egunean, 47 urtedun il zan azpeitiar abade gazte baten eriotza gendun aotan: «Txapel» abadea, izen bereko bertsolariaren semea. Orduntxe esan eustan «Basarri»k: Oso kezkatuta nago. «Uztapide» adiskidea bart Donosti'ko Gaixo-Egoitzara (Residentzira) eroan eben, eztakit oraingotan azkenez izango ez ete dan.

«Uztapide» baserri deitura zan, etxekoa; odelekua Olaizola; bataio ta zibillez, Manuel.

Endoia'ko eleiz irukoitzaren aurrez-aurre dago Uztapide baserria, bertsolariaren jaiotetxea.

Toki polita da Endoia. Itziar'tik aurrera, Andutz mendiaren gibelatik doan bidean joan, Lastur'era-ko bidea eskumatara laga ta aurrera jarraituz, gaiñetxo baten, bei-aldean Arrua'ko zementu lan-tegiko kei zuriak ikusten dirala. Erriz Zetzona.

Uztapide berberak onela zeaztuten dau toki ori bere «Lengo egunak gogoan» liburuan: «Itxas bista ederra da; Udarako toki ona. Gain baten dago. Atari-jira ederra du; patxara ederrekua. Kamioñoa ere ba du; eleiza ere bai; atarian

eskola emateko tokia ere bai; apaiz etxea ere bai; telefonoa ere bai, Uztapide etxe bertan».

Mundu aldi ederra eban amuna ezagutu eban berak bertan. Onelako berbak ipinten zitun amonaren aotan: «Ogei seme-alaba azi ditugu. Nik amabi ta erraiñak zortzi. Eta etxe onetatik ez da atera nere gizonaren gorputza besterik irurogei urte oneitan». Bizi egoki ta osasun oneko baserria?

Alaz eta baserriko legeak ba dauka muga lako bat. Ainbeste anaik ogia latz. Eta etxetik urten bear.

Ikazgiñan, baso-lanetan, ardi-zain. Morroi eta bere konturako. Zela ala bizimodua atara bear. Alaxe Manuel'ek be. Bertsoak lagungarri. Beti apal eta itzal. Gerrogo jakiña, bularreko miña ete zan bere izatean, umorezko eta zirikalaritari bertsoan be gizon a ain apal eta itun agertzera beartuten ebana?

Aldi baten iñoiz bertsoarik kantatu izan ba zan, erri txiki nai andi, auzo nai uri, «Basarri» ta «Uztapide» izango ziran geienetan kantarikide, besteen laguntasunik ukatu barik. Sekula bereari garratzirik emon barik.

1962 urtean, Donosti'ko bertsolari txapelketan, epai-maiko izan ginanok, kezkatu lez egin ginan Uztapide ta Basarri puntu bardinetan oartzen genduzalako.

Uste dot bildurtu be egin giñala. Baiña eritxiak agertu ta Uztapide geratu zan txapeldun.

Ala autetsi.

Nire ustez, lenena mindu zana, nai eta txapeldun geratzea beretzat amesgarri izan, Uztapide berbera zala esango neuke.

Bere liburuan agertzen dau: «Juradua etorri zanean, lenbiziko Uztapide eta bigarren Basarri, Jaungoikoak ala naiko zuan da nik ezin ezer egin. Azkenekoa eman ba zidaten ere, etzegoen ezer egiterik».

Urteak dira gaixotu zala. Txori kantaria mutututa gelditu. Gai-xoaren minez eta naigabez. Amar urte dira berak esan ebala: «Zarrak ziranak joan ziran mundu onetatik; eta gazteak ginanok ere zartu gera eta larri gabiltz».

Bertsoarik ezin kantatu ta liburuetan laga nai izan bere asken oroitzak:

Ixilik ezin egoa eta nolabait bear det mintza...
Euskalerriari egiten diot liburu batea eskintza.

Besterik ezean, «ZER» onetan bizkaitarron gomuta eskiñi nai izan dausat. Beste batzuk zeaztuko dabe bere bizitza. Nik ez dot sekula aztuko ain bertsolari andi eta apalaren irudi ta izaterik. Beretzat gaurko nire otoitza.

Augustin ZUBIKARAI